

DANTZAGUNEA

topagunea

Jardunaldiaren ondorioak:
Publikoari¹ buruz hitz egiteko hiru momentu.
Dantza-hezkuntza bizi osoan zehar

... eta etorkizunerako lan-proposamenak



Gipuzkoako Foru Aldundia

- ¹ "Publikoa" kontzeptuaren barruan, eta begira poliedrikoa oinarri hartuta, guk guztiok, bakoitzak bere ikuspegitik eta interesetik, erabiltzen eta lantzen ditugun termino hurbil guztiak bateratu nahi izan ditugu: erabiltzaileak, ikusleak, bildutakoak, kontsumitzaileak, konplizeak, ko-sortzaileak, partaideak...

1.- Jardunaldiaren planteamendua

- **Non kokatzen dugu jardunaldia?**

Dantza-alorreko ikaskuntza eta sorkuntza bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eratutako zerbitzua da Dantzagunea. Kultura-balioaren kate osoa indartzeko jarduerak egiten ditugu: informazioa, prestakuntza, ikerkuntza, lankidetzak-sareak, sorkuntza, ikusleak, banaketa, etab.

Sektorea eta zuzenean inplikaturako eragileak indartzeko jardueren artean dago **hausnarketa, ezagutzaren transferentzia eta trukea, esperientzien aurkezpena eta oinarri ditugun ideien eraldaketa sustatzeko topaguneak** antolatzea.

2013an, lehen aldiz antolatu zen San Telmo Museoan "Dantzaren gaur egungo erronkak" izeneko jardunaldia, kultura-sektoreko eta administrazio publikoko profesional ugari bildu zituena.

Oso balorazio positiboak jaso ziren jardunaldiaren inpaktuari buruz. Izan ere, bertan parte hartu zuten profesional eta eragileek nahiz administrazio publikoko teknikariek, denek adierazi ziguten Dantzaguneak ekimen horri eutsi behar ziola, eta horixe izan da, hain zuzen, jardunaldi hau antolatzera bultzatu gaituen arrazoia.

Indar horrek bultzatu gaitu beste topagune bat antolatzera.

- **Hausnarketa zentratzearen**

Indar horretan bermatuz eta aurreko lan-ildoari eutsiz ekin genion lanari, iazko jardunaldian ondorioztatutakoa oinarri hartuta. Alegia, Dantzagunera hurbiltzen diren lagun guztiekin nahiz gure lanak deskubritu eta osatzeko gonbidatu nahi ditugun lagunekin bildu eta begiradak astinduz, bidegurutzeak sortzea, dedikazio zabalagoa eta lasaitasun handiagoa eskatzen zuten gaiak lantzeari ekin genion.

Halatan, bada, 2013ko lehen topagune hartan erronkak hainbat ikuspegitatik aztertu genituen bezala, oraingo honetan pentsatu genuen **publikoen hezkuntzan, sentsibilizazioan eta sorreran sakondu beharra zegoela. Hau da, ikastetxearen (ikastetxea zentzu zabalenean: eskolak, unibertsitatea, lanbide heziketa...) eta konpainien/profesionalen arteko arte-bitartekaritzan eta publikoaren (gizartearen) eta konpainiaren arteko bitartekaritzan. Erronka zaila da, benetan ere, baina nahitaezkoa gai hori indartuko duten ideien bila guztion artean partekatu, eztabaidatu eta pentsatu nahi badugu.**

Dantzagunea, bilgunea. Dantzagunearen kokaleku berria kontuan hartuta, jardunaldiok Erreterian egitea pentsatu genuen, urte batzuk barru Gipuzkoako Arte Eszenikoen erreferentzia bihurtuko den (Lekuona eraikin berria tarteko) udalerriri keinua egiteko eta, aldi berean, Dantzagunearen espazio berriak aurkezteko.

Dantzagunea sarea/sinergiak. 2014 urteko helburuetako bat Dantzagunearen sarea pixka bat gehiago ehuntzea izan da. Horregatik, Erreterian **Sarearen** (Euskadiko Antzoki Sarearen) Batzar Nagusia egiten zen egun berean antolatutako jardunaldia. Asmoa zera zen: Sareako eta Iparraldeko programatzaileen eta dantzako profesionalen arteko elkarrekintza ahalbidetuko duten topaguneak irekitzea.

Euren laguntzatxoa eman duten guztiei esker ona adierazi nahi diegu, eta bereziki:

- ✓ Erreterriako Udaleko kultura-taldeari, aipaturiko konexioa ahalbidetu eta sustatu duelako.
- ✓ Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, eta bereziki Sareari.
- ✓ Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarteari (ADDE).
- ✓ Euskal Kultur Erakundeari (EKE).

- **Jardunaldiko menua**

**lehenengo
atala**
primera parte

hausnarketa partekatua reflexión compartida

9:00-9:30 Hasteko kafe bat – parte-hartzaileen harrera
Dantzaguneako instalazio berrietara bisita /
Un café para empezar– recepción de participantes.
Visita a las nuevas instalaciones de Dantzagunea.

9:30-9:45 Jardunaldiaren aurkezpena / Presentación de la Jornada.

9:45-12:15 **LAN-MAHAIA:** Bizitza osoan zehar hezi eta sentsibilizatu:
publikoak sortzen arte eszenikoetan
Dinamizatzailea: Ana Remiro. *Dantzaguneako lan-taldea*
Mahaira gonbidatuak: publikoen heziketan eta sentsibilizazioan
eskarmentua duten dantza sektoreko profesionalak
Aurretiko testuingurua: Hausnarketa partekatuaren aurretik,
dantza eremuan publikoen heziketaren eta sentsibilizazioaren
kontuetan EAEn egun garatzen ari diren esperientzietara
lehenengo hurbilketa aurkeztuko da.

MESA DE TRABAJO: Educar y sensibilizar a lo largo de la
vida: construyendo públicos en las artes escénicas.
Dinamizadora: Ana Remiro. *Equipo Dantzagunea*
Invitados/as a la mesa: profesionales del sector de la danza con
experiencia en la educación y sensibilización de públicos
Contexto previo: Antes de la reflexión compartida se presentará
una primera aproximación a las experiencias que actualmente
se están desarrollando en la CAE en materia de educación y
sensibilización de públicos en danza.

Metodologia: banakako lana; taldeka lan egiteko parte-hartzaileen banaketa; aurkezpen orokorra
Gunea: Dantzaguneako instalazio berriak. Pelotarien kalea, z/g (Niessen eraikina) 20100-Errenteria

Metodologia: trabajo individual; distribución de participantes para trabajo en grupos; presentación general
Espacio: nuevas instalaciones de Dantzagunea. Pelotarien kalea, s/n (edificio Niessen) 20100-Errenteria

**bigarren
atala**
segunda parte

hausnarketa partekatua reflexión compartida

12:30-13:10

Aurkezpen eszenikoa: Rouge elea /
Presentación escénica: Rouge elea

13:10-14:30

Bitartekotza artistikoan esperientziak (hasierako
planteamendua) / Experiencias prácticas en mediación artística
(planteamiento inicial):

- ROUGE ELEA
- DEJABU PANPIN LABORATEGIA
- BALLET T (Tempus Berria Koreografia - Zentroa)
- KUKAI
- DANTZAZ

Metodologia: Esperientzien aurkezpenak. 15 minutu esperientzia bakoitzerako

Gunea: Entsegu-gela (Niessen eraikina)

SAREAko eta Iparraldeko programatzaileen eta Dantzaguneako jardunaldiko parte-hartzaileen **arteko gune partekatua**

Antolaketa/Elkarlanean ari dira: Sarea-EKE-Dantzagunea-Errenteriako Udala

Metodologia: Presentaciones de las experiencias 15 minutos por experiencia

Espacio: Sala de ensayos (edificio Niessen)

Espacio compartido entre programadores de Sarea e Iparralde, participantes jornada Dantzagunea

Organizan/Colaboran: Sarea-EKE-Dantzagunea-Errenteriako Udala

OTAMENA (SAREAKo eta Dantzaguneako parte-hartzaileek elkarrekin partekatua)

TRUKERAKO GUNEA

Otamena egingo da Dantzaguneako egoitza berrian. Dantzaguneako gune berriak bisitatzeko aukera aprobetxatuko da

LUNCH (compartico participantes Sarea, participantes dantzagunea)

ESPACIO PARA EL INTERCAMBIO

El lunch se celebrará en la nueva sede de Dantzagunea. Se aprovechará para visitar los nuevos espacios de Dantzagunea

hirugarren
atala
tercera parte

hausnarketa partekatua reflexión compartida

14:30-18:30

**BITARTEKOTZA ETA ARTE BIZIAK. GORPUTZAREN
ETA MUGIMENDUAREN INGURUKO PRAKTIKA
PEDAGOGIKOAK BERRIRO PENTSATUZ**

Dinamizazioa: Artaziak.

Parte-hartzaileak: kultura-programatzaileak, dantza profesionalak,
kultura-bitartekariak, kultura-kudeatzaileak, eta abar.

**MEDIACIÓN Y ARTES VIVAS. REPENSANDO LAS
PRÁCTICAS PEDAGÓGICAS EN TORNO AL CUERPO Y EL
MOVIMIENTO.**

Dinamización: Artaziak.

Participantes: programadores/as culturales, profesionales de la
danza, mediadores/as culturales, gestores culturales, etc.

18:30-19:00

Ondorioak eta jardunaldiaren amaier/ Conclusiones y
Cierre jornada.

Metodologia: ARTAZIAK
ADDE eta Dantzagunearen **arteko elkarlana**
Gunea: Niessen eraikineko entsegu-gela

Metodología: ARTAZIAK
Colaboración ADDE y Dantzagunea
Espacio: Sala de ensayos edificio Niessen

jarduera paraleloak:

Garapen prozesuan dauden proiektuen ateak irekiak Dantzaguneako aretoetan (Sortutakoak)

Actividades paralelas:

puertas abiertas en las salas de Dantzagunea de proyectos en desarrollo (Sortutakoak)

2.- Bizitza osoko hezkuntzari eta sentsibilizazioari buruzko hausnarketak (1. mahaia)

- **Abiapuntua**

Dantza-sektorea indartzeko gogoz eta sektore horri erreparatuz, Dantzagunean ohartu gara hezkuntza-alorrari lotutako hainbat eta hainbat esperientzia eta ekimen sortu direla, dantzako profesionalengandik abiatu eta gizarteko hainbat alorretara zuzenduta. Horietako batzuk eskola-esparrura (arte eszenikoei lotutako hezkuntza-edukiak ia ezezagunak diren eta existitzen direnean, eguneratu gabe dauden esparru horretara) bideratu dira, bertan tokitxoak bilatzeko asmoz. Beste kasu batzuetan, hartzaille helduagoen bila abiatu dira, eta beste batzuetan familia-ingurunearen bila, azken garaiotan Europan horrenbesteko garrantzia hartu duen bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptuarekin argi eta garbi lotuta.

Eskola-esparruari dagokionez, proposamen batzuk lehen hezkuntzara zuzentzen dira; beste batzuk bigarren hezkuntzara, batxilergora, bai eta unibertsitatera ere. Horietako gehienak (baina ez denak) hasi berriak dira eta, momentuz, gizartean inpaktu berria badute ere, inpaktu mugatua ere bada.

“Bizitza osoan zehar hezi eta sentsibilizatzea: bizitza osoan arte eszenikoen ikusle izatea” izeneko mahaiaren bidez eta hausnarketa partekatuko jardun horren bidez, batetik ekimen guzti horiek ikusarazi eta bultzatu nahi izan ditugu eta, bestetik, hezkuntza-proiektu horiek areago hazi eta zabaltzea galarazten duten zailtasunak antzeman nahi izan ditugu, gero irtenbideak eskaini ahal izateko.

Hausnarketa honako oinarrizko ideia hauen inguruan garatu, partekatu, berrikusi eta aztertu da:

- ✓ Hezkuntza- eta sentsibilizazio-alorreko ekimen batzuk banakatuak dira, ez dute loturarik elkarren artean, eta oihartzuna ere eskasa da.
- ✓ Dauden esperientzien bidez, dantzaren publiko potentzial guztiengana iristea lortzen dugu? Zer taldetara/kolektibotara zuzentzen dira ekimen gehienak? Eta zer talde landu beharko lirateke gehiago?
- ✓ Proiektua eskola-esparruan ezartzeko aukera emango duen mintzakideengana iristeko zailtasunak dituzte konpainiek. Ikastetxea mintzakide baliagarria al da? Berritzegunea bestela? Udala? Gorputz-heziketako irakasleak, beharbada?
- ✓ Arte eszenikoei ia ez dute inolako agerpenik eskola-curriculumean, eta oso gutxitan agertzen dira plan estrategikoetan eta ikastetxeen plan berezietan.
- ✓ Ikasgeletan eta bizitza osoko hezkuntzan ez da etorkizuneko ikuslerik prestatzen.

TALDEAREN HAUSNARKETA

Ideia horren inguruan, zailtasunak, irtenbide posibleak eta Dantzaguneak irtenbide horiek bultzatzeko izan behar duen eginkizuna zehaztu dira taldean.

**EZARTZEKO
ZAILTASUNAK**

**ZAILTASUN HORIEK
GAINDITZEKO
IRTENBIDEAK**

**ETA ZER EGIN DEZAKE
DANTZAGUNEAK?**

Zorionez, hausnarketari esker, zailtasunak baino irtenbide gehiago azaleratu dira. Sormen oparoa, benetan ere!!!!

A) Antzemandako zailtasunak

LABUR ADIERAZITA

1. Denbora, espazioa eta jarraitutasuna falta dira.
2. Ikastetxeetako irakasleek ez dute inplikaziorik eta motibaziorik.
3. Ikastetxeetan loturatzat jardungo duen pertsona bilatzeko zailtasunak daude (prest egon litezkeen pertsonengana, esperientziak katalizatuko dituzten pertsonengana iristeko zailtasunak).
4. Ikastetxeek ez dute proiektu horien berri.
5. Irakasleek ez dute dantzari buruzko ezagutzarik, eta bai, ordea, aurreiritziak.
6. Proiektuak burutzeko finantzaketa falta da.
7. Irakasleek ez dakite dantza hezkuntza arautuaren errealitatearen parte dela: gaitasun ekonomiko mugatua, interesak, ordutegiak...
8. Prezioen politika eskasa dago.

- II. jardunaldian agerian jarritako kontuen artean, nabarmentzekoa da zenbat proiektu zuzentzen diren dantza mundutik hezkuntza-esparrura. Ekimenak ugariak eta orotarikoak dira, eta kalitate handikoak, gainera. Alabaina, ez dute ia oihartzunik, EAEn dagoen ikastetxe-sarea, hau da, ezartzeko eremu potentziala, kontuan hartuta.

- Dantzari lotutako hezkuntza-jarduera proposatzen denean, honako hauek dira ikastetxeetan aurkitzen diren zailtasunik handienak:
 - irakasleek ez dute jarduera horiek programatzeko denborarik,
 - ez dago jarduerak gauzatzeko espazio egokirik, eta
 - jarduerak abian jarri ondoren, ez dute jarraitutasunik izaten.

- Jardunaldian parte hartu duten profesional askoren iritzian, irakasle batzuek denbora galdutzat jotzen dute dantza-jardueretan emandakoa eta, horregatik, noizbehinka baino ez dituzte onartzen, eta jarraitutasunik gabe gainera. Euren ustez, dantzan emandako denbora hori "benetako irakasgaietan" berreskuratu beharko dute gero, kontuan hartu gabe dantza-jarduerak ikasleei zer ikaskuntza- eta konpetentzia-garapen eskaintzen dioten.

- Irakasleek oro har duten inplikazio-eza eta dantzak eskaintzen dituen hezkuntza-balioekiko (hala nola aniztasunarekiko errespetuarekiko eta enpatia-premiarekiko) sentsibilizazio-eza ere antzeman dituzte dantza-profesionalek ikastetxera proposamenen batekin hurbiltzen direnean. Horixe dute aipagai partaideek jardunaldian esaten dutenean "mintzakidea izango den norbait bilatzeko premia" dagoela, dantzako hezkuntza-proiektua ikastetxeetan sartu ahal izateko. Gainera, ikastetxeetara jotzeko protokolo zehatz bat ere falta dute dantza-profesionalek. Ez dakite zuzendaritzarekin, irakasleekin, guraso-elkartearekin edota beste erakunde bitartekariren batekin jarri behar diren harremanetan.

- Jarduera horiek burutzeko beste alderdi negatibo bat zera da: ikastetxeek ez dutela programa edo hezkuntza-proiektu horien berri. Ekimena abian jartzeko beste zailtasun moduan, zera aipatu dute partaideek: irakasleek ez dakitela ia ezer dantzari buruz eta badutela batzuetan, ordea, aurreiritziren bat edo beste.

- Kontrara, dantzako profesionalek ere ez dakite ia ezer hezkuntza arautuari buruz: unitate didaktikoak zer diseinu zehatz duten eta nola diseinatzen diren, gaitasun ekonomiko mugatua dutela, ikastetxeek zer interes duten, zer ordutegi, irakasleen lan-gainkarga eta estresa, etab.

- Azkenik, proiektu horiek garatzeko finantzaketa-ezak ondorio negatiboa du hezkuntza-ehunean izan lezakeen zabalkunde kuantitatiboan eta ikastetxeetako irakaskuntza-jardueren egunerokotasunean.

B) Proposatutako irtenbideak

LABUR ADIERAZITA

1. Arte-erakundeen eta hezkuntza-erakundeen arteko harremana landu behar da.
2. Horretarako, langile bitartekariaren figura sortu beharra dago.
3. Harreman horri denboran eutsi behar zaio, topaguneen eta ebaluazio-saioen bidez.
4. Prestatutako pertsonengana jo behar da; adibidez, dantza-pedagogoengana. Dagoeneko badaude alor horretan prestatutako profesional-sortak.
5. Batera diseinatutako proiektuak behar dira.
6. Lankidetzan egindako proiektuak bultzatu behar dira.
7. Sorkuntza eszenikoaren hasieratik bertatik pentsatu behar da proiektu pedagogikoan.
8. Dantza-profesionalek hezkuntza arautuaren errealitatea ezagutu behar dute. Ildo horretan doazen prestakuntza-jarduerak antolatu beharko lirateke.
9. Irakaskuntza orokorreko irakasleei zuzendutako dantza-alorreko prestakuntza eta sentsibilizazioa landu behar da.
10. Irakasle-eskolan dantza irakatsi behar da.
11. Artistek eduki pedagogikoen inguruko prestakuntza jaso behar lukete.
12. Arte Eszenikoen Batxilergoa ezartzeko lan egin behar da.
13. Hezkuntza-proiektuen katalogoa sortu eta ikastetxeen esku utzi behar da.

- Zailtasunen azterketa egin ondoren, irtenbide ugari eta zehatzak eskaini dira. Horietako batzuk berehala jar daitezke abian; beste batzuk, munta handiagokoak, epe ertainean edo luzean ezartzeko modukoak direla jotzen da.
- Badago argi eta garbi azaleratzen den beharrik: arte-erakundeen eta hezkuntza-erakundeen arteko harremanak lantzeko premia. Bi alderdien arteko harremana eta bi norabideko trukea sustatzea, eta truke hori iraunkor bihurtzea, dantza-alorreko hezkuntza-proposamenen inguruko orientazioak eman eta eskola-esparruko emaitzak ebaluatzeko saioren bidez. Proposamen horiek guztiak aktibatuz, bitartekariaren figura sortzearen premia nabaritu da. Espezialista horrek eraiki eta sustatuko du zubi hori, eta berak

negoziatuko ditu esparru bataren eta bestearen arteko eskakizunak eta beharrianak, denboran iraunkorra izango den harreman emankorra eraikitzeko.

- Ildo beretik, garrantzitsua da dantza-pedagogian prestatutako profesioletara jotzea. Proposamenak guztiz zentzuzkoa dirudi, kontuan hartuta dagoeneko diziplina horretan titulua eskuratu duten hainbat promozio daudela kalean.
- Beste aldetik, dantza-profesionalek geroz eta argiago ikusten dute elkarrekin diseinatutako proiektuak sortzeko beharra. Hau da, hezkuntza-proiektua diseinatzen hasten den une beretik ikastetxearen ikuspegia jaso behar dela, eta sorkuntza eszenikoa abian jartzen den une beretik hezkuntza-proiektuan pentsatzen hasi behar dela.
- Ildo beretik, dantza-profesionalek hezkuntza arautuaren errealitatea ezagutzeko premia nabari da. Ildo horretan doazen prestakuntza-jarduerak antolatu beharko lirateke. Norabide horretan bertan, oso garrantzitsua litzateke dantzaren inguruko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzea irakaskuntza orokorreko irakasleei zuzenduta. Zentzu horretan, epe laburrerako ideietako bat zera litzateke: haur-eskolako eta lehen hezkuntzako graduako irakasle-eskoletan nahiz irakasleak prestatzeko masterretan dantza-irakasgaia sartzea.
- Azterketan bertan, eta orain aipatutako ildoari jarraiki, artistei zuzendutako eduki pedagogikoetako prestakuntzan aurrera egiteko premia ere antzeman da. Baliabide hori oso beharrezkoa ez ezik, baliagarria ere bada, eta aspaldian antzemandako gabezia estaltzeko balio izango luke.
- Gaur egun hezkuntzara zuzenduta dauden proposamen guztiak bilduko lituzkeen katalogoa prestatu eta ikastetxeen esku jarriko balitz, proiektu horiei bultzada handia emateaz gain, hezkuntza-erakundeekiko komunikazioa erraztu ere egingo litzateke.
- Horrekin batera, Arte Eszenikoen Batxilergoa ezartzea lortuko balitz, dantzak hezkuntza arautuan duen presentzia nabarmen sendotuko litzateke, eta aurreko prestakuntza-zikloekin (haur-eskolarekin eta lehen eta bigarren hezkuntzarekin) harreman osoagoak eta koherenteagoak ahalbidetuko lirateke.
- Oro har, gizarte-eragileekin lankidetzan egindako proiektuak bultzatzea proposatzen da, dantza gure gizarte-ingurunean hobeto txertatzen lagunduko lukeelakoan.

A) Zer egin dezake Dantzaguneak?

Bileraren puntu garrantzitsu bat Dantzaguneak hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren esparru horretan har lezakeen eginkizuna zehaztera bideratu da. Labur aipatuko ditugu lan-ildoetako batzuk eta, agiri honen amaieran, ondorio eta aurrerakuntza gisa jorratuko ditugu.

- Dantzaguneak profesionalek egiten dituzten **esperientziak biltzeko** zerbitzua izan behar du, eta proposamen horiek goi-mailako instituzioetara bideratu behar ditu ondoren.
- Gaur egun txertatzen diren proiektu eta esperientzien **jarraipena egin** behar du eta, aurreko puntuan adierazi den bezala, proiektu horiek defendatu egin behar ditu.
 - Hezkuntza-erakundeen aurrean errazago "saltzeko" balio izango duten formatu erakargarrien bidez, proiektuak **dinamizatu** egin behar ditu.
- Esparru horretako esperientzien eta pertsonen bidez, **sinergiak sortu** behar ditu.
- Inplikaturako eragileentzako eta eragileen arteko **komunikazioa**.
- Hezkuntza-proiektuen defentsan eta jarraipenean **laguntza eskaintzea**
 - Aldundiko Diputatuak programa aurkezteko eskutitza idatziko balu, euskarri ofiziala eskaintzea lortuko genuke. Gainera, eta ildo beretik, gizarte- eta hezkuntza-alorreko erakunde potentzialetara bisitak ere egin litzake, programa aurkezteko asmoz.

3.- Bitartekaritza eta arte biziei buruzko gogoetak. Gorputzaren eta mugimenduaren inguruko jardun pedagogikoak berriz pentsatzea (2. mahaia).

- **Non kokatzen dugu jardunaldia?**

"Bitartekaritza eta arte biziei buruzko gogoetak. Gorputzaren eta mugimenduaren inguruko jardun pedagogikoak berriz pentsatzea" izan zen arratsaldeko mahaiko gaia. Goizean landutakoa izan zen arratsaldekoaren abiapuntua, asmo bikoitz batekin:

- a.- Beste esparru batzuetatik datozen esperientziak zabaltzea: arte bizien sorkuntza-munduari lotutako konpainiek eta eragileek hezkuntza-alorrean egindako ekintzen diagnostikoa/mapatzea.
- b.- Prozesu horietan parte hartzen duten eragileen arteko topagunea sortzea, kultura-jarduerak planteatzeko aukera eta modu berriak diseinatzeko, baina hasiera-hasieratik bitartekaritza kontuan hartuta.

Bi lantalde osatu dira, prozesuan parte hartzen duten kolektiboak ordezkatzeko dituzten pertsonak bilduta: konpainiak, sortzaileak, programatzaileak, bitartekariak, ikastetxeak, komunikazio-alorreko langileak, administraziokoak, etab.

Beharizanak eta baliabideak biltzeko dinamika erabili da, hortik aurrera arte bizien eta publikoen arteko topagune eta jardunbide berriak bilatzeko asmoz.

Honako helburu hauek zehaztu dira:

- Agenteen (kontaktuen) sare txikia eratzea, denboran handitu eta zabaltzeko asmoarekin.
- Agenteetako bakoitzak une zehatzen batean onartuko lituzkeen atazak eta konpromisoak.
- Sare eta konpromiso horiek kontuan izatea, aurrerantzean, behar den bakoitzean, horien laguntza jasotzeko moduan..

TALDEEN HAUSNARKETA

Ondoren, dinamikaren emaitzak aurkeztuko ditugu: interesak, beharrianak eta baliabideak (ondorio eta ildo irekiak).

a) Partaideek adierazitako INTERESAK

- Dantza aitortu eta balioztatzea.
- Zabaltzea, sentsibilizatzea eta publiko berriak sortzea. Arte Eszenikoen sektorean dauden zailtasunak eta beharrianak ezagutzea, bitartekaritza, sentsibilizazioari eta publikoei lotuta.
- Beste esperientzia batzuk ezagutu eta etorkizuneko lankide posibleak identifikatzea. Orain arteko rolak hautsi eta proiektuen arabera lan egitea. Eragileen (programatzaileen, sortzaileen, publikoen...) arteko harreman berriak sortzea.
- Dantzaren elkarteak garatzen laguntzea.

1. MAHAIA | INTERESAK (banan-banan adierazita)

- Dantzaren onurak plazaratu eta partekatzea
 - Dantzaren irakaskuntza/ikaskuntza prozesuen interesa
 - Dantza garatzen lagunduko duten proposamenak/ideiak sortzea
 - Dantzak presentzia handiago izatea herritarren egunerokoan
 - Dantzaren bidez mugitzea
 - Dantza aitortu eta balioztatzea
- Dantza horren zoragarria izanik, nola lortuko dut publikoak berdina sentitzea?
- Dantzagunea eta Euskal Herriko dantza-profesionalen ekarpenak ezagutzea
 - Sektorearen eskaerei erantzutea
 - Esperientziak entzutea
 - Jendea ezagutzea
 - Sektoreko diziplinetako profesionalak elkar ezagutzea
 - Jakin-mina
 - Elkar ezagutu eta esperientziak trukitzea
 - Dantzaren elkarteak garatzen laguntzea
- Hezkuntza-sistemari buruzko informazioa eskuratzea, dantzan publiko zabalagoa garatzeko modua ezagutzeko
- Beste esperientzia batzuk ezagutu eta etorkizuneko lankide posibleak identifikatzea
 - Arte Eszenikoen sektoreak dauden zailtasunak eta beharrianak ezagutzea, bitartekaritza, sentsibilizazioari eta publikoei dagokienez

- Beste esperientzia batzuk ezagutzea eta norberarenak partekatzea
- Dantzaren kezketan sakondu eta horien berri izatea, eta lankidetzeta-aukerak aztertzea
- Dantzan gertatzen den guztiaren inguruko informazioa izateko premia
 - Elkartea sortzea
 - Ahotza eta entzuna
 - **Hobetzeko gogoz**

2. MAHAIA | INTERESAK (banan-banan adierazita)

- Kultura, balioa
- Arte-prozesuek aberastasuna sortzen dute, azken emaitzez harago
 - Gorputzaren presentzia jendartean areagotzea
 - Bizi (bizimodua)
 - **Ekoizpenak eta bizilekuak eskaintzea (BAI, bizkaiko antzerki ikastegia)**
- **Dantza, eta batez ere mintzaira mistoak, antzokien ohiko programazioan sartzea**
 - Antzokien programazioaren bidez dantza ikusaraztea (Barakaldo)
 - Publiko berriak dantzarekiko sentsibilizatzea, eta bertara hurbilaraztea
 - Dantza sustatzea nire ardura delako
- Eragileen (programatzaileen, sortzaileen, publikoen...) arteko harreman berriak
 - **Emanaldiak eta programazioa elkarri lotzea**
 - **Sortzaileak eta programatzaileak batera aritzea publikoak sortzen**
 - Dantza artetzat ezagutzera ematea
 - Lan kooperatiboa
 - Egungo egoerak bestela lan egitera bultzatzen gaitu
 - Hutsuneak daudelako, loturak bilatzea
 - **Harremanean kokatzea - BITARTEAN**
 - Art(he)zkuntza - eraldatzeko eremua
 - **Dantzak pertsonak eta gizartea eraldatzeko duen gaitasuna**

- **EKOLOGIA** - guztiok guztion beharra dugu
 - Bestea = aberastasuna
 - Ongizatea
 - **Izaten ikastea**
 - Inor eta norbere burua deskubritzea
 - Inor eta norbere burua eraldatzea
- **Partekatuz eta aurkituz gehiago ikasten dut eta aurreikusi ezin diren ustekabeko kontuak agertzen dira**
- **Kuriositatea sortzea, ezagutaraztea, dantza erakutsaraztea eta zaletasuna sortzea**
 - Ezarritako rolak haustea
 - Kultura sustatzea
 - Proiektuen arabera aritzea
 - Dantza, orotariko adimenen lanaren zatia
 - Mugimenduan egotea
- **Ezagutza, harremanak, ongizatea sortzea**
 - **HAZI, dantzan haztea**
- **Lantalde bat hainbat alderdi lantzeko: sortzaileak, kudeatzaileak, antzezleak...**

b) Partaideek adierazitako BEHARRIZANAK

Orokorrak:

- Egonkortasuna / Errentagarritasuna / Ikusgarritasuna / Prestakuntza / Lankidetzak

Zehatzagoak:

- Gipuzkoan musikaren, dantzaren eta arte eszenikoen batxilergoaren bidea oinarritzeko lotura edo masa kritikoa sortzea. Ezartzeko leku posiblea: Donostia/Erreneria
- Programazioak deskontuak eta erraztasunak eskaintzea
- Harrera-guneak
- Ikastetxeen eta antzokien arteko aliantzak
- Curriculum-diseinuan malgutasuna

BEHARRIZANAK (banan-ban adierazita)

- Ni nagoen profil profesionaletan proiektu gehiago garatu ahal izateko egonkortasun profesionala eta ekonomikoa
 - Arte Eszenikoen iraunkortasunerako aukerak ikusaraztea
 - Beste sentsibilizazio-proiektu batzuekin batera aritzea
 - Eragileak ezagutzea
 - Gipuzkoan musikaren, dantzaren eta arte eszenikoen batxilergoaren bidea oinarritzeko lotura edo masa kritikoa sortzea. Ezartzeko leku posiblea: Donostia/Erreneria
 - Ekiten hastea
 - Arte-ahaleginei etekina ateratzea
 - Ikusgarritasuna
 - Baliabideak
 - Jarduera bateratuak
 - Hibridatzea, lankidetzan aritzea (lehian aritu beharrean)
 - Kultura mugiaraztea
 - Ikasleak ikuskizunetara eramateko indarra egitea
 - Programazioak deskontuak eta erraztasunak eskaintzea
 - Dantza garatzen laguntzea
 - Epe luzerako iraunkortasuna
 - Arte horren onuran oinarritzea, iraun dezan
 - Programatzaile gisa, "benetako" lankidetzak eskaintzea konpainiei
 - Dantza-munduarekiko komunikazio eta ezagutza handiagoa
 - Hezkuntza-sektoreari sarbide mikroak eta makroak eskaintzea, haren partaidetza bultzatzeko

- Berehalako konposaketari buruzko nire lana zer egituratan burutu/proposatu dezakedan hobeto antzematea
 - **Aldaketa**
 - Beharrianen, oztopen eta aukera berrien ikuspegi argia izatea
 - Dirua
 - Denbora
 - **Harrera-guneak**
 - **Ikastetxeen eta antzokien arteko aliantzak**
 - Komunikatzea - komunikazioa
 - Ausardia – prozesuen muturreraino iristea
 - **Lotsagabekeria, ausardia**
- Proiektua aurrera ateratzeko inplikazioa eta borondatea
 - Prestakuntza
 - Curriculum-diseinuan malgutasuna
 - Elkarri lotutako guneak sarean

c) BALIABIDEAK. Ildo irekiak esparru guztietan.

Programazioa:

- Sentsibilizazio-programazioetarako aurrekontu-partida handitzea
- Bizitokiak eta baliabideak
- Ekintzek programazioan ikusgarritasuna izatea
- Ikasleentzako programazio iraunkorra
- Ikastetxeetako publikoei egokitutako prezio-politikak ezartzeko aukera
- Adostutako egun eta orduetan beren espazioak lagaz, konpainiekin lankidetzan aritzeko aukera

Artistak eta konpainiak:

- Eskoletako irakasleentzako prestakuntza eskaintzea
- Programatzaileengana hurbiltzea, elkarriketa-bide berriak ezartzeko
- Proiektuetan DIY esperientzia
- Beste toki batzuekiko lotura izatea, nazioartekotasuna
- Hitzaldiak emanaldien aurretik eta ondoren
- Gorputza oinarri hartuta pentsatzeko eta berriz pentsatzeko gogoia

Administrazioa:

- Garatzen diren proposamen guztien berri emateko plataforma eskaintzea
- Aldundiko politikariak eta teknikariak programen garrantziaz jabeaztea
- Administrazioak (Aldundiak) azpiegiturak, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea; sektoreak aurrera egiteko eta pertsonak prestatzeko borondatea eta interesa

Bitartekaritza/hezkuntza:

- Aholkularitza, esperientzia hezkuntza-prozesuetan
- Legezko argudioak (hezkuntza); proiektuak justifikatzeko, hezkuntzaren testuinguruan kokatzea
- Hezkuntza-proposamenak diseinatzea (abiapuntuak)
- Programatzaileen eta sortzaileen arteko bitartekaritza/laguntza, proiektuak garatzeko.

Irakasleak:

- Ikastetxeko irakasleen inplikazioa prozesuetan
- Beste modu batean egiteko, ikasteko, partekatzeko... irekita egotea

4.- Ate irekiak

28ko jardunaldi trinkoa bukatu ondoren, Dantzaguneko taldeak eta laguntzaileek denbora-tartetxo lasaiagoa izan genuen, partaideekin eduki eta gai nagusiei, ikuspegei eta prozesuari buruzko sentrazioak, iritziak eta balorazioak kontrastatzeko, noraino iritsi ginen eta noraino irits gintezkeen jakiteko.

Mahaietan eta taldeetan ateratako inputetan eta geroago bildu ditugun balorazioetan eta ekarpenetan oinarrituta prestatu dugu lehen argazki hau. Argazki dinamikoa izatea da gure asmoa, guztion artean zehazten jarraitzeko modukoa.

Partekatu dugun denbora eskas baina trinkoak honako hauek egiteko aukera eman digu:

Hausnarketarako baina batez ere ekintzarako guneak sortzen jarraitzeko premia agerian jartzeko...

... noizbehinka bildu beharrean, **denboran iraunkorrak eta jarraituak izango diren foro eta lantegiak eratzeko premia** ikustarazteko

.. **ikuspegi eta ikuspuntu inklusiboak, zabalak hibridatu²** behar dituztela, **orotariko perspektibak eta inplikazioak, erantzukizunak** bildu behar dituztela ohartzeko...

... eta **txikienetik** (askotan norbanakoarengandik) abiatuta gure ingurunean **diseinatzen** (sustatzen, garatzen...) **ari diren ekimenak indartzeko**, lankidetzaren premia azpimarratzeko.

Testuinguru hori kontuan hartuta, hainbat proposamen sortu dira taldean, zuokin guztiokin kontrastatu, indartu, osatu eta zehaztuko ditugunak. Lehen proposamen horietako batzuk garrantzi handikoak dira eta beste batzuk ez hainbeste, baina guztiek ere alderdi ESTRATEGIKOA, PROFESIONAL, PRESTAKUNTZAKOA eta abar sakondu nahi dituzte.

² dantza-profesionalak (dantzariak, koreografoak, irakasleak, dantza-alorreko ikerlari eta kritikoak, etab.), kulturaren esparruko hurbileko jardueretan edo arte eszenikoei eta kulturei zuzenean lotutako funtsezko hobietan, prestakuntzan eta hezkuntzan (zentzurik zabalenean), kultura-programazioan, kultura-bitartekaritzan eta abarrean ari diren beste eragile batzuekin.

1. Hezkuntzari, arteari, kulturari eta abarri lotutako erakunde publikoekin elkarreragina sendotzeko proposamenak.

Aurretik adierazi dugunez, banakako egitura edo profesional askok (batez ere txikienek, pertsona bakar batek "denetarik" egin behar izaten duen horiek) zailtasun handiak izaten dituzte hezkuntza-erakundeekin harreman zuzenak izateko, baita hezkuntzari, sentsibilizaziori eta abarri lotutako ekimen eta proiektuak aurkezteko "funtsezkoak" diren arduradunekin ere.

Eginkizun horietan banaka jardun ohi da, eta, egindako ahaleginen arabera, emaitzak hobeak edo okerragoak izango dira. Kontuan izan behar dugu profesional edo konpainia bakoitzak sustapena eta marketina egin behar duela "merkatuan" egoteko, baina zeregin horiek handiegiak dira bakarka lantzeko. Ez dugu ahaztu behar, halere, badirela sektorekako ekimenak (esaterako ADDEk egindakoa, Antzoki Sarearekin elkarreragin zuzena izateko) egitura horietara elkar hartuta jotzen dutenak, sektore horretarako egiten diren kultura-politikan parte hartzeko (edo, behintzat, ahotsa izateko).

Jakina, horixe da zereginik konplexuena, eta jardunaldian parte hartu dugun askok zuzenean ikusi ahal izan dugu zer zaila den erakunde horietara "iristea". Dena dela, lan-ildo horretan jarraitu behar dugu eta, lehen esan dugun bezala, profesional eta konpainien lana laguntzeko, Dantzagunea bezalako zerbitzuak egon behar dira (Datzabizekin elkarlanean, Bizkaian, nabarmentasun handiagoa lortzeko, eta noski, beste elkarte batzuekin, hala nola ADDEekin eta Gipuzkoako dantza-profesionalen elkartearekin). Eta, jakina, bide zail horiek zabaltzen (eta, geroago, horiei eusten) urte asko eman dituzten beste pertsona batzuek lagunduta.

Ildo horretan jarraitzeko, zera proposatzen da: erakunde horiekin eta, batez ere, horien barruan eragile izan daitezkeen pertsonekin dauden konexioak (daudenean) zabaltzea edo sendotzea.

Zentzu horretan, besteak beste, taldean honako proposamen hauek aintzat hartzea proposatzen da:

- **BERRITZEGUNE**etara hurbiltzen hastea eta hurbiltasuna sendotzea, **PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN BERRIKUNTZA LAGUNTZEKO ZENTROAK** direlako. **Zentro horiek funtsezko baliabideak dira, hezkuntza-elkarte osoaren eskariak eta beharrak koordinatu eta jasotzen dituztelako. Zentro horiekin lan eginda, gainera, ahaleginak "errentagarri bihurtu" eta "kontzentratu" egingo lirateke, atez ate ibiltzea saihesteko.**

Esan beharra dago errazagoa dela ikastetxeekin lan egitea, aurkezten diren ekimenei ikastetxeetan erabiltzen diren egitura, metodologia, terminologia eta abar barne hartzen dutenean, hau da, ekimena GAITASUN, HELBURU DIDAKTIKO, EBALUAZIO ADIERAZLE, EDUKI, UNITATE DIDATIKO eta abarren bidez azaltzen denean. Kontuan izan behar dugu hizkuntza bateratu horrek lagundu egiten diela irakasleei hezkuntza-esperientzia hobeto kokatzen.

Hainbat aukera daude zentro horiekin lan egiteko, baina horietatik bi oso agerikoak dira:

- ❖ AURKEZPEN BILERA BAT EGITEA, DANTZA PROFESIONALEK ikastetxeetako curriculumari egin diezaioketen ekarpenaren eta profesionalak eta konpainiek garaturik dituzten lerroen (adinaren arabera etab.) berri emateko.
- ❖ ESPERIENTZIA ERAKUSKETA BAT ANTOLATZEA, berritzeguneetako eta ikastetxeetako langileei ekimenak aurkezteko. Erakusketa horrek gaur egun dagoenaren adierazgarri izan behar luke eta ekimenak adin, helburu, ikasle, irakasle, familia eta abarren arabera izango lirateke.

Informazio lagungarria

EAEko berritzeguneen zerrenda (zentrala Bilbon dago)

<http://www.berritzeguneak.net/index.php?id=es>



Gure esperientzia:

Dantzagunearen esparruan, hiru hilabete inguru daramatzagu prestakuntza-zentroekin Arbelak Mugituz-en Gorputzaldiak ekimena ezartzeko. Egindako marketina gorabehera (deiak, informazioa ohiko postaren bidez etab.) ikastetxeetan "sartzea" oso zaila zela ikusirik, berritzeguneekin zuzenean lan egitea erabaki genuen. Hainbat bilera egin ondoren eta gauza batzuk zehazteko hilaren 28an izandako jardunaldiaren ostean, gurekin harremanetan dagoen pertsonak honako hauek adierazi zizkigun:

- *Gorputzaldiak ekimena (beste esperientzia bat ere izan zitekeen) oso interesgarria dela.*
- *Hartu gintuen berritzeguneak ez zuela horrelako ekimenen berri, eta beren prestakuntza-eskaintzan sartzea interesgarria izan zitekeela.*
- *Materiala hezkuntzaren errealitatera egokituta egotea garrantzi handikoa zela (gaitasunak, gaitasun-unitateak eta abar).*

- **Taldean hezkuntzari eta sentsibilizazioari lotuta sortu diren gogoetak EAeko kultura- eta hezkuntza-politiken esparruan inbrikatzea, garatzen diren ekimen, programa eta proiektuetan txertatzeko.**

Testuinguru horretan, honako proposamen hauek planteatzen dira:

A. Bilerak egitea herri-administrazioiko hezkuntza- eta kultura-arduradunekin.

Aurreko proposamenaren zentzu berean, baina ikuspegi zabalago batekin, komenigarria izango litzateke **Eusko Jaurlaritzako** Hezkuntza eta Kultura Sailarekin eta **hiru foru-aldundiekin** lanean jarraitzea, dantza (eta, oro har, arte eszenikoak, ekimenei indar handiagoa emateko) hezkuntzan sartzeko proposamenarekin lotutako gaiak planteatzeko edo planteamenduari eusteko, eta epe labur, ertain eta luzerako gogoeta bateratua egitea, arte horiek etorkizunean irauteko garrantzia izango duten gaiei buruz. Honako gai hauek, adibidez:

- Eszenika - Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola,
- arte eszenikoen, musikaren eta dantzaren inguruko batxilergo berriak ezartzea (duela gutxi bilera bat egin da Erreterian, hain zuzen herriko ikastetxe batean batxilergo hori sartzeko).
- dantza-ikasgaia haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasle-ikasketen graduan eta irakasleak prestatzeko masterretan.
- etab.

B. Kultura Auzolanean 2014-2015 ekimenean sektorearen eskakizunak aurkeztea.

Datozen hilabeteetan, eragile publiko eta pribatuen artean euskal kultura osoarentzako ikuspegi estrategikoa, jarduera-irizpideak eta lehentasunak hitzartzeko tresna horren bigarren fasea hasiko da. Eusko Jaurlaritzak gogoeta-gune horretan parte hartzeko aukeratu dituen pertsonekin harremanetan jartzea da kontua, jardunaldian sortutako gogoetak eztabaidagai gisara mahai gainean jartzea proposatzeko, eta pertsona horiek nolabait ere taldearekin bitartekariak izateko.

Hezkuntza eta sentsibilizazioa barne hartzen dituzten kultura-proiektuak europar ekimenen (Europa sortzailea – industria sortzaileak) esparruan aurkezteko eta beste autonomia-erkidego edo herrialde batzuetako erakunde, konpainia edo profesionalen bazkide izateko aukerak aztertzea.

2.- Epe ertain eta luzera gazte nahiz helduak dantza- eta mugimendu-jardueren inguruan egunero ikasi eta prestatzera (bizitza osoko hezkuntza) bultzatuko dituzten interes-taldeei zuzendutako proposamenak.

Jardunaldiari esker, hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekimen ugari jarri ahal izan dira mahai gainean. Batez ere haur eta gazteei bideratuta daude, baina baita beste kolektibo batzuei ere, nahiz eta hein txikiagoan izan. Planteatutako proposamenek etengabeko feed-backa izan behar dute:

- **Dantzatik hezkuntzara**

- o Arte eszenikoen inguruan hezi eta sentsibilizatuko duten ekintzak ezartzeko, ikastetxeetako irakasleek eta zuzendaritzek duten eginkizun garrantzitsua kontuan hartuta, **ikastetxeetako zuzendariei, irakasleei eta tutoretzako langileei zuzendutako prestakuntza-eskaintza eta jardunaldi espezifikoak antolatzearen premia** ikusi da. Eskaintza horren baitan sartuko dira dantzak eta arte eszenikoen gazteak pertsona gisa garatzeko eskaintzen duten potentziala eta balioak, metodologiak, ideia horrek indartuko dituzten baliabideak (ikus-entzunezko euskarriak...) eta abar.
- o Ildo berean lan egingo da irakasleei zuzendutako orotariko jardunaldi eta lantegietan, **dantzak/mugimenduak pertsonaren hezkuntzan duen garrantziaren berri emateko**. Horrela, ekimen horiek kolektibo horretan geroz eta txertatze-maila izatea lortuko da.

- **Hezkuntzatik dantzara**

- o Irakasleek dantza-profesionalei ikasgelaren eta ikastetxearen errealitatearen berri emateko prestakuntza- eta truke-guneak sortu behar dira, askotan dantza-profesionalek ez dutelako hezkuntza-esparruari buruzko ezagutza nahikorik. Gune horiek oso garrantzitsuak izango dira dantza-profesionalek esperientziak benetan txertatuko diren testuingurua sakon ezagutu (prozesuak, kalitatea, inpaktua-erantzak, etab.) eta euren ekimena horretara egoki dezaten.

3.- Hezkuntza- eta sentsibilizazio-alorreko esperientziak plazaratzera eta komunikatzera bideratutako proposamenak

Sektoreko konpainiek eta profesionalek gehien adierazi duten gabeziak bat komunikazioa eta zabalak da, zentzurik zabalenean (emanaldiak ikusgarri egiteko, garatzen diren ikerketak ezagutzeko, etab.). Egitura txikien kasuan (askotan pertsona bakarrekoak izaten baitira), askoz ere zailtasun handiagoak dituzte. Errealitate hori are larriagoa da orain aipagai dugun hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren esparruan (norberaren ikuskizuna "saltzeko" denborarik ez badago, ia ezinezkoa da hezkuntza-ekimenak saltzen denbora ematea).

Honako proposamen hauek aurkeztu dira gabezia horiek arindu eta ekimen horiek ikusarazteko eta marketinari bide emateko.

- EAEn bitza osoko hezkuntzaren alorrean egindako **esperientzien eta ekimenen katalogoa** prestatzea, ekimen bakoitzaren ezaugarri nagusiak jasota. Dantzaguneak jardunaldian bildutako fitxek horretarako oinarritzko informazioa emango dute.
- **Katalogo hori ahalik eta bide gehien bitartez zabaltzea:** dantzagunearen, ADDEren, dantzabizen eta abarren webguneen bitartez, adibidez. Produktu hori kapitulu honetan azaldu diren espazioetan aurkezteko sarbidea izan daiteke: berritzeguneetan, Eusko Jaurlaritzan, ikastetxeetan...

4.- Hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren inguruan sortu diren gogoetetan sakontzen jarraitzea bideratutako proposamenak.

Jardunaldian sortu den kimua elikatzen jarraitzea da asmoa, aipaturiko ildoetan lanean jarraituko duen **elkarte txikia** osatzeko asmoz. Ildo horretan, zera proposatu da:

- **Hezkuntzari eta sentsibilizazioari buruzko hausnarketa-mahaia:** planteatutako gaiak garatzen jarraituko duen lantaldea osatzea, bertaratutako bileren bidez eta jarraipen birtualaren bidez, zehaztutako ibilbideetan barna joateko.

Erronka ugari eta baliabide eta denbora mugatuak ditugu, egunerokotasunaren pisuak jarduera osagarri horietan denbora gehiago ematea galarazten digutelako, eta askotan etsipenera eramaten gaituzten emaitza eskasak eskuratzen ditugulako.

Alabaina, Dantzaguneak, Dantzabizek, ADDEk eta abarrek proposamen horiek guztiak bideratzeko katalizatzaile lana bete dezaketen arren, ireki diren fronteak indartzeko pertsonak beharko genituzke.

Lankidetzan jarraitu behar dugu. Pilota guztion teihatuan dago.